

Biztanleria landunaren euskararen erabilera lanean jardueraren arabera

Definizioa

EAEko 16 eta 74 urte bitarteko biztanleria landunak zein hizkuntza erabiltzen duen lanean jasotzen du adierazle honek. Biztanleria landuna jardueraren arabera sailkatu da.

Hedadura

EAE

Aldagaiak eta kategoriak

- **Eremu geografikoa:** EAE, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
- **Erabiltzen den hizkuntza:**
 - Beti euskaraz
 - Euskaraz erdaraz baino gehiago
 - Euskaraz erdaraz beste
 - Euskaraz erdaraz baino gutxiago
 - Beti erdaraz

Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

Biztanleria landunaren euskararen erabilera lanean jardueraren, sexuaren eta adinaren arabera

Iturria

Lan Merkatuaren Zentsua (LMZ) Eskaintza

Iturriaren ezaugarriak

Lan Merkatuaren Zentsuak aztertzen duen unibertsoa EAEko 16 eta 74 urte bitarteko biztanleria landuna da.

Eskaintzari dagokion Lan Merkatuaren Zentsua (LMZ) Euskal Estatistika Planean sartuta dago, eta 1993tik urtero egiten da da (1.996, 2000, 2004, 2008, 2012 eta 2016an izan ezik, urte horietan eskariari dagokion Lan Merkatuaren Zentsua egiten baita).

Euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko galderak 2008an hasi zen jasotzen, baina galdetegia 2017an zabaldu zen, eta euskararen erabilera eta ezagutza sartu ziren, bai eguneroko edo familiako eremuan, bai lan-eremuan edo jarduera nagusian ere.

Iturriaren arduraduna

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak, Euskal Estatistika Erakundearekin (Eustat) koordinatuta

Lehenengo datua eta maiztasuna	Lehenengo datua: 2018. Maiztasuna: urterokoa.
Lagina eta akats-tartea	Euskal Autonomia Erkidegoko 12.750 familia-etxebizitza, 24 lurralde-unitatetan banatuta (EUSTATen 20 eskualdeei dagozkienak, eta horietatik espezifikoki bereiziko diren EAeko hiru hiriburuak eta Ezkerraldea eta Eskuinaldea). Gainera, 25.000 biztanletik gorako udalerrietan berez dagokiena baino lagin-kopuru handiagoa egin da. Akats-tarte orokorra \pm %1.
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	https://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/estatistika/lan-merkatuaren-errolda-eskaintzaren-taula-estatistikoak-lme-eskaintza/ https://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/informazioa/lan-merkatuaren-erroldan-erabilitako-eskualdeak-eta-azpieskualdeak/
Galdesorta(k)	https://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/informazioa/lan-merkatuaren-erroldaren-galde-sortak-lme/